

ANIMALIAK



BATETIK BESTERA
IBILTZEN DA AZPITIK,
ZULO ASKO EGITEN IA
EZER IKUSI BARIK, ZUK
ERE EZ PENTSA
ERRAZ HARRAPATZERIK.

BELTZ, TXIKI ETA LANGILE FINAK
GELDI EGONEZINAK,
BETI DABILTZA BATERA ETA BESTERA
BAINA EZIN HAUTSIK ATERA.

TXALEKO ZURIZ
ETA FRAK BELTZEZ JANTZIA,
HEGAN EGITEN EZ DUEN
ITSASOKO HEGAZTIA.

BETI HARRO-HARRO DOAN
SABANAKO ERREGEA
IKUSTEN BADUZU ZIRKOAN
PRESO DAGOEN SEINALEA.

OROIMEN ETA USAIMEN HANDIKOA
LARRU GOGORREKO ABERA,
SUDURRA ERE IZUGARRIZKOA
MUNDUKO LUZEENA BERE.

HANKARIK EZ
ETA SIGI-SAGA DABIL,
BESORIK EZ
ETA ZUHAITZETAN KIRIBIL.